| BAREMAZIOA | PUNTUAZIOA | FORMULARIOA | AZALPENA |
|---|---|---|---|
| **I- PROIEKTUAREN EDUKIEN ARABERA** | **49** | | |
| **1.1. Proiektuaren bidezkotasuna eta egokitasuna Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian indarrean dagoen lankidetza-plangintzen esparruari dagokionez eta txertatzen den testuinguruari dagokionez** | **22** | | |
| 1.1.1. Ekimena egokia bada dagokion testuinguruaren analisiari dagokionez, eta diagnostikoan identifikatutako premiei erantzuten badie | 3 | 3.- Testuingurua<br>5.- Justifikazioa | 3.1.- Aipatu herriaren egoera zein den (egoera soziala, ekonomikoa, politikoa eta abar) tokiko-global ikuspegi batetik begiratuta (tokiko erronka eta arazoak dinamika globalekin lotuta).<br>3.2.- Adierazi zeharkako alderdiei (genero-harremanak, tokiko gaitasunak, parte-hartzea, antolamendua, eskubideen ikuspegia eta jasangarritasun ekologikoa) dagozkien diagnostikoak eta/edo azterketak (kuantitatibo eta kualitatiboak), proiektuaren esparruan.<br>5.1.- Esku hartzeko estrategia azaldu, egindako azterketa eta diagnosien arabera.<br>5.2.- Justifikatu egokitasuna xede-biztanleriari dagokionez eta pobreziari aurre egiteko estrategiari dagokionez.<br>5.3.- Justifikatu esku-hartzea indarrean dagoen garapenerako lankidetza-plangintzen esparrua kontuan hartuta eta ekimenak dakartzan alderdi berritzaileak azpimarratuz.<br>Tokiko-global ikuspegia baloratzen hasten aldera, testuinguruaren analisian tokiko erronken/arazoen eta dinamika globalen harteko konexioa barneratzea baloratuko da. |
| 1.1.1.1. Xede-biztanleriaren pobrezia- eta desberdintasun-egoeraren egiturazko azterketa eta/edo interpretazio nahikoa badu | 1 | | |
| 1.1.1.2. Analisiak xede-biztanleriaren gaiari eta kokapen geografikoari buruzko datu espezifikoak baditu | 1 | | |
| 1.1.1.3. Proiektuaren xede diren tokiko erronka eta arazoek dinamika globalekin duten konexioaren azterketa kritikoa egiten baldin badu | 1 | | |
| 1.1.2. Xede-biztanleriak identifikazio-prozesuan parte-hartze aktiboa izan badu eta, hala badagokio, tokiko erakunde bazkideak gidatu badu prozesu hori | 2 | 4.- Aurrekariak | Argitu ekimena nondik sortu den eta zer nolako identifikazio-prozesua parte-hartzailea jarraitu den (erakunde eskatzaileak(ek) eta, bere kasuan, tokiko erakundeak(ek), xede-biztanleriak betetzen duten eginkizuna zehaztuta). Aipatu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak aldez aurretik lagundutako prozesuen aurrerapen, erronka eta ikaskuntza esanguratsuenak, baita bere jarraipenaren egokitasuna |
| 1.1.3. Xede-populazioari dagokionez | 3 | 7.- Xede-biztanleria | 7.1.- Xede-biztanleria identifikatzea eta ezaugarriak aipatzea.<br>7.2.- Hautaketa-irizpideak. Deskribatu xede-biztanleria hautatzeko irizpide zehatzak eta, gainera, xede-biztanleria zuzena osotzen duten kolektibo desberdinek duten ahalmen biderkatzailea azaldu.<br>7.3.- Hala badagokio, emakumeen eta ikusezin eta/edo gutxiengo bihurtutako kolektiboen (dibertsitate funtzionala, sexuari, adinari, kulturari, erlijioari... lotutako dibertsitatea) parte-hartzea bermatzeko berariazko neurrien berri ematea.<br>Proiektuan parte diren giza-talde guztien zenbatzea, karakterizazioa eta identifikazioa barneratu behar da taulan.<br>Garrantzitsua: xede-biztanleria zuzena eta giza-talde garrantzitsuak soilik barneratu. |
| 1.1.3.1. Identifikatutako xede-biztanleria, eta bere hautaketa, justifikatuta badaude. | 1 | | |
| 1.1.3.2. Xede-biztanleriak ahalmen biderkatzailea badu | 1 | | |
| 1.1.3.3. Ikusezin eta/edo minorizatutako kolektiboak modu esanguratsuan txertatzen badira proiektuan | 1 | | |
| 1.1.4. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia aldez aurretik lagundutako prozesu bat baldin bada, prozesuaren jarraipena egokitzat jotzen bada eta formularioan behar beste justifikatzen bada. | 2 | 4.- Aurrekariak | Garrantzitsua: aurretiaz lagundutako prozesuen aurrerapenak, erronkak, ikasketak, etab. zehaztea. |
| 1.1.5. Esku-hartzea estrategikoa eta egokia bada Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian indarrean dagoen garapenerako lankidetza-plangintzen esparruan ezarritako lehentasunen arabera. | 12 | 5.- Justifikazioa eta 8.- Esku hartzeko logika | 8.1.- Marko logikoaren matrizea. Gehienez 20 adierazle zehaztu behar dira matrize osorako. Ez txertatu eranskinik.<br>8.2.- Aurreikusitako jarduerak eta horiek garatzeko beharrezko baliabideak. Deskribatu zehazki emaitzak lortzeko zer ekintza aurreikusi diren, eta ekintza bakoitza garatzeko behar izango diren baliabideak: metodologikoak, teknikoak eta materialak, baita giza baliabideak (soilik jarduera hori gauzatzeko beharrezkoak badira giza eskubide horiek) zehaztu beharko dira. |
| 1.1.5.1. Proiektua hiru sektore hauetako batean kokatzen bada: emakumeen ahalduntzea, giza eskubideen defendatzaileak babestea eta gatazkak eraldatu eta bakea eraikitzea. | 2 | | |
| 1.1.5.2. Esku-hartzeak Afrikarekin zerikusia badu | 4 | | |
| 1.1.5.2.1 Proiektua Afrikan gauzatzen bada | 4 | | |
| 1.1.5.2.2. Proiektuak Afrikarekin eta/edo Afrikako pertsonen erakundeekin artikulazio esanguratsuak sortzen baditu. | 2 | | |
| 1.1.5.3. Ekimena testuinguruari dagokionez bidezkoa, estrategikoa eta egokia dela frogatzen bada | 2 | | |
| 1.1.5.4. Esku-hartzeak dinamika lokalak eta globalak lotzeko bidean aurrera egiten badu | 2 | | |
| 1.1.5.4.1. Xede-biztanleriak testuinguru lokala eta globala kritikoki interpretatzeko duen gaitasuna garatzea ahalbidetzen duten jarduerak planteatzen badira | 1 | | |
| 1.1.5.4.2. Proposatutako jardueren xedea bada hainbat eragileren artean sareak sustatzea eta agenda global baten inguruan eskualde/mundu mailako egituratzea egitea, esperientziak partekatzea eta lankidetza espezifikoak zehaztea ahalbidetuko duten espazioak sortzeko. | 1 | | |
| 1.1.5.5. Proiektuak erantzunkidetasuna sustatzen badu, lankidetza-arloan tradizionalak ez diren Euskadiko eragileak modu esanguratsuan mugiarazita. | 1 | | |
| **1.2. Proiektuaren koherentzia orokorra** | **11** | | |
| 1.2.1. Esku-hartzearen logika deskribatuta badago eta hautatutako esku hartzeko estrategia justifikatzen badu | 2 | 5.- Justifikazioa eta 8.- Esku hartzeko logika | EML eta kronograma formularioan barneratuta daude.<br>Jardueren deskribapenaren alde garrantzitsuak barneratzen dira (baliabideak, aurrekontua, iraupena).<br>Aurrekontua ereduaren arabera.<br>Ebaluatu ezin diren adierazleak dituzten proiektuak ez dira onartuko. |
| 1.2.2. Esku-hartzearen logika koherentea baldin bada | 3 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| 1.2.2.1. Esku-hartze logikak helburu espezifikoa lortzeko behar diren jarduera guztiak barneratzen baditu, eta beharrezkoak diren jarduera guztiak definituta badaude. | 3 | | |
| 1.2.2.2. Esku-hartzearen logika koherentea bada, baina helburu espezifikoa lortzeko behar diren emaitzetako bat ez badu edo helburu hori lortzeko beharrezkoak ez diren emaitzak sartzen badira. | 1 | | |
| 1.2.3. Jardueren eta horiek ezartzeko baliabideen artean koherentzia badago | 3 | 8.- Esku hartzeko logika<br>10.- Aurrekontua | |
| 1.2.3.1. Baldin eta lotura koherentea badago jardueren, bitartekoen eta kostuen, eta elementu horiek aurrekontuan biltzeko moduaren artean | 2 | | |
| 1.2.3.2. Jarduerak aurrekontura behar bezala eramaten ez badira, edo eskuhartzearen logikarako beharrezkoak ez diren atalak badaude | 1 | | |
| 1.2.3.3. Puntu gehigarria - ekonomia sozial eta solidarioko baliabideak erabiltzen badira | 1 | | |
| 1.2.4. Adierazle zehatzak, neurgarriak eta egiaztagarriak formulatzen badira | 3 | 8.- Lógica de intervención | |
| 1.2.4.1. Baldin eta helburu espezifikoarekiko eta espero diren emaitzekiko adierazle egokiak ezartzen badira; beharrezkoa izango da gutxienez genero-eraginarekin lotutako adierazleren bat jasotzea | 3 | | |
| 1.2.4.2. Baldin eta helburu espezifikoarekiko edo espero diren emaitzekiko ezarritako adierazleetan zenbait gabezia badaude, eta gutxienez genero-eraginarekin lotutako adierazleren bat jasotzen bada | 2 | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1.2.4.3. Adierazle egokiak ezartzen badira soilik emaitzaren baterako edo genero-eraginarekin lotutako adierazlerik jasotzen ez bada | 1 | | |
| **1.3. Bideragarritasuna** | **13** | | |
| 1.3.1. Proiektua behar bezala ezartzeko baliabide metodologikoak, teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada | 2 | 11.- Bideragarritasuna | 11.1.- Baliabide metodologikoak. Azaldu zein ikuspegi metodologikoak hautatu diren, nola egokitzen diren testuingurura, xede-biztanleriara eta jardueretara, eta komunikazio horizontalaren zein jakintzen dekolonialitatearen sustapenean nola laguntzen duten. Halaber, indartutako gaitasunak erreplika egiteko eta praktikan jartzeko proposamen eta tresnak ematen diren azaldu.<br><br>Eranskinean honako dokumentu hauek baino ez dira aztertuko: prestakuntza-planak.<br><br>11.3.- Baliabide instituzionalak (agintari publikoen, tradizionalen, eta abarren babesa deskribatu). Azaldu ekimena nola txertatzen den erakunde eskatzailearen eta tokiko erakundearen(*) indarreko plan estrategikoetan. Balego, erakundeen ingurumen politika azaldu eta honek proiektuarekin duen harremana; edo bestela, proiektuko jardueren eragin negatiboa saihesteko eta arintzeko hartuko diren neurriak azaldu. Hala badagokio, proiektuaren etorkizuneko jasangarritasunerako konpromiso ekonomikoak zehaztu.<br>(*) Tokiko partzuergoaren kasuan, partzuergoko kide den edozein tokiko erakunderen plan estrategikoak aipatu ahal izango dira.<br><br>Eranskinean honako dokumentu hauek baino ez dira aztertuko: abalak eta konpromiso instituzionalak. |
| 1.3.1.1. Proiektua behar bezala ezartzeko baliabide teknikoak eta instituzionalak daudela frogatzen bada | 2 | | |
| 1.3.1.2. Proiektua behar bezala inplementatzeko baliabide metodologikoak, teknikoak eta instituzionalak badirela frogatzen bada, baina horietako batzuetan gabeziak daudela identifikatzen bada | 1 | | |
| 1.3.2. Proiektua behar bezala inplementatzeko baliabide metodologikoak daudela frogatzen bada | 3 | | |
| 1.3.2.1. Xede-biztanleriarekiko egokitzapen metodologikoa badago | 1 | | |
| 1.3.2.2. Aurreikusitako jarduerekiko egokitzapen metodologikoa badago | 1 | | |
| 1.3.2.3. Planteatutako metodologia egokia bada komunikazio horizontala sustatzeko eta jakintzaren dekolonialtasuna sustatzeko | 1 | | |
| 1.3.3. Ezarritako kronograma Esparru Logikoaren Matrizearekin eta aurkeztutako proposamenarekin bat badator | 1 | 9.- Kronograma | |
| 1.3.4. Proiektua behar bezala inplementatzeko giza baliabide nahikoak daudela frogatzen bada, bai Euskadin bai lurraldeetan | 3 | 11.- Bideragarritasuna | 11.2.- Giza baliabideak. Deskribatu postuaren profila eta ekimena gauzatzen parte hartuko duten langileek (tokiko erakundearen langileak eta, hala badagokio, erakunde eskatzailearen langile eta atzerriraturiko langileak) zer funtzio/eginkizun beteko dituzten. Gainera, formakuntzetan beste pertsona eta/edo agente/instantzia batzuen laguntza izango bada – Euskadin zein beste lurraldeetan-, zehaztu. Honetaz gain, pertsona bakoitza zer erakunderi lotuta dagoen identifikatu.<br><br>Ez txertatu CVrik.<br>Eranskinean honako dokumentu hau baino ez da aztertuko: atzerriraturiko langileen memoria (hala badagokio, derrigorrezkoa). |
| 1.3.4.1. Giza baliabideek proiektua behar bezala ezartzeko gaitasun nahikoa dutela eta erantzukizunak eta funtzioak argi banatzen direla frogatzen bada | 3 | | |
| 1.3.4.2. Proiektua behar bezala ezartzeko giza baliabide egokiak daudela frogatzen bada, baina erantzukizunen eta funtzioen banaketa argia ez bada | 1 | | |
| 1.3.5. Ekimena erakunde eskatzailearen eta, hala badagokio, tokiko erakunde bazkidearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator | 2 | 11.- Bideragarritasuna | |
| 1.3.5.1. Ekimena erakunde eskatzailearen indarreko plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan azalduta badago | 1 | | |
| 1.3.5.2. Ekimena tokiko erakunde bazkideak indarrean duen plangintza estrategikoarekin bat badator eta formularioan azalduta badago | 1 | | |
| 1.3.6. Etengabeko ikaskuntza | 2 | 12.- Etengabeko ikaskuntza eta ebaluazioa | 12.- ETENGABEKO IKASKUNTZA ETA EBALUAZIOA. Ez txertatu eranskinik.<br><br>Deskribatu etengabeko ikaskuntzako ekintzak: sistematizazioak, ebaluazioak, ikaskuntzak sortzeko espazioak, eta abar. Gainera, azaldu xede-biztanleriarekin aurrerapenak eta zailtasunak partekatzeko komunikazio jarduerak, sortutako ikasketak gizarteratzeko jarduerak, eta abarrerako jarduerak badaude.<br><br>Kanpo-ebaluazioa aurreikusten bada, deskribatu, labur-labur, helburua, irizpideak, metodologia, gizarteratzeko mekanismoak eta gomendioei erantzuteko mekanismoak, edo ikaskuntzak nola txertatuko diren. |
| 1.3.6.1. Egindako jarduerak jakinaraztea eta xedeen eta adierazleen jarraipena egitea planteatzen bada, aurrerapen eta zailtasunei dagokienez, xede-biztanleriarekin | 1 | | |
| 1.3.6.2. Ebaluazioen edo sistematizazioen bidez ikaskuntzak sortzeko espazioen eta uneen aurreikuspena badago eta sortutako ikaskuntzen komunikazio- eta hedapen-estrategia bat badago | 1 | | |
| **1.4. Denboran eustea** | **3** | | |
| 1.4.1. Proiektua amaitu ondoren emaitzak eta helburua mantenduko direla aurreikusten bada | **3** | 8.- Esku hartzeko logika<br><br>11.- Bideragarritasuna<br><br>12.- Etengabeko ikaskuntza eta ebaluazioa | |
| 1.4.2. Proiektua bukatutakoan proiektuaren helburuari eta emaitzei denboran eusten lagunduko dieten gaitasun, sare edo harremanak ezarrita utziko direla aurreikusten bada | **1** | | |
| **II - PROIEKTUAREN ZEHARKAKO IKUSPEGIEN ARABERA** | **33** | | |
| **2.1. Generoa** | **7** | | |
| Diagnostikoa - xede-biztanleriaren genero-harremanen azterketa egina badago, gaian, lurraldean eta esku-hartze zehatzean oinarrituta | 1 | 3.- Testuingurua | |
| Esparru Logikoaren Matrizea | 2 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| ELMan sexu- eta/edo genero-desberdintasunen arrakala murrizten laguntzen duten emaitza eta/edo jarduera esanguratsuak badaude | 1 | | |
| ELMan genero-ikuspegia txertatzen laguntzen duten emaitza eta/edo jarduera esanguratsuak badaude | 1 | | |
| Bideragarritasuna | 3 | 11.- Bideragarritasuna | |
| Planteatutako metodologia egokia bada emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko | 1 | | |
| Giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak eta instituzionalak egokiak badira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko eta/edo emakumeak ahalduntzeko | 1 | | |
| Proiektuko ekintzetan emakumeen parte-hartze aktiboa bermatzeko neurri espezifikoak sartzen badira | 1 | | |
| Estrategia - emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko estrategia integrala proposatzen bada | 1 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| **2.2. Tokiko gaitasunak indartzea** | **10** | | |
| Diagnostikoa - proiektuaren xede diren biztanleen eta/edo haien erakundeen gaitasunei eta kalteberatasunei buruzko diagnostiko zehatza eta espezifikoa badago | 2 | 3.- Testuingurua | |
| Xede-biztanleriaren gaitasunak eta ahuleziak modu zehatzean eta espezifikoan identifikatzen badira, eta analisia xede-populazioa osatzen duten pertsona-talde/-tipologien arabera zehazten bada | 2 | | |
| Xede-biztanleriaren gaitasunak eta ahuleziak identifikatzen badira, baina analisia ez bada behar bezain zehatza eta espezifikoa | 1 | | |
| Esparru Logikoaren Matrizea | 2 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| ELMan gaitasun tekniko eta/edo estrategiko politikoak indartzeko helburu eta/edo emaitza zehatzak eta ondo definituak badaude | 2 | | |
| ELMan gaitasun tekniko eta/edo estrategiko politikoak indartzea helburu duten jarduerak ondo zehaztuta badaude | 1 | | |
| Bideragarritasuna | 4 | 11.- Bideragarritasuna | |
| Planteatutako metodologia estrategia abian jartzera eta gaitasunak (teknikoak eta/edo estrategikoak, politikoak) sendotzera bideratzen bada | 1 | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Giza baliabideak eta baliabide teknikoak, materialak eta instituzionalak egokiak badira tokiko gaitasunetan aurrera egiteko (gaitasun tekniko eta/edo estrategikoak, politikoak) | 1 | | |
| Proiektuan parte hartzen duten hegoaldeko zein iparraldeko erakunde/instantzia gaitzaileak deskribatzen badira eta haiek proiektuaren garapenari egindako ekarpenak argudiatzen badira, metodologiari edo gaiari dagokionez | 1 | | |
| Banakatutako aurrekontuan zehazten badira gaitasunak indartzeko (teknikoak edota estrategikoak, politikoak) giza baliabideak, eta baliabide tekniko eta material espezifiko horiek | 1 | | |
| Ahalmen biderkatzailea - ekimenaren esparruan indartutako gaitasunak praktikan jartzeko eta erantzuteko tresnak eta proposamenak ematen badira | 1 | | |
| Estrategia - xede-biztanleriaren gaitasunak sortzeko estrategia integral bat planteatzen bada | 1 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| **2.3. Parte-hartzeko prozesuak sortzea** | **4** | | |
| Diagnostikoa - xede-biztanleriak kide diren antolakunde/erakundeetan eta/edo beren erkidego/udalerrietan duen partaidetza-mailari buruzko azterketa zehatza eta espezifikoa badago | 1 | 3.- Testuingurua | |
| Esparru Logikoaren Matrizea | 2 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| Erabakiak hartzeko guneetan xede-biztanleriaren parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa hobetuko duten helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira | 1 | | |
| Parte-hartze aktiboa sustatzen duten jarduerak planteatzen badira | 1 | | |
| Estrategia - estrategia integrala proposatzen bada xede-biztanleriak proiektuaren garapenaren fase guztietan parte har dezan | 1 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| **2.4. Erakundea indartzea** | **4** | | |
| Diagnostikoa - xede-biztanleriaren kokapen geografikoan dauden antolakundeei/erakundeei eta elkarte-ehunari buruzko azterketa zehatza eta espezifikoa badago | 1 | 3.- Testuingurua | |
| Esparru Logikoaren Matrizea | 2 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| Elkarteak/erakundeak indartzeko helburuak eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira | 1 | | |
| Elkarteak/erakundeak indartzeko jarduerak planteatzen badira | 1 | | |
| Estrategia - elkartea(k) eta/edo erakundea(k) indartzeko estrategia integrala planteatzen bada | 1 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| **2.5. Eskubideen ikuspegia** | **4** | | |
| Diagnostikoa | 2 | 3.- Testuingurua | |
| Honako atal hauek bilduko dituen azterketa bat badago: a) proiektuan landuko d(ir)en eskubide(ar)en egoerari buruzko azterketa; b) proiektuan landuko d(ir)en eskubideari/eskubideei buruzko tokiko-nazioko-eskualdeko-nazioarteko legeriaren azterketa; c) eskubideen titularren eta betebeharren titularren identifikazioa, baita haien gaitasunena ere | 2 | | |
| Aipatutako ataletatik gutxienez 2 barnean hartzen baditu | 1 | | |
| Esparru Logikoaren Matrizea - helburu eta/edo emaitza zehatzak definitzen badira eskubideen (defentsa eta galdagarritasuna) titularren eta/edo betebeharren (errespetua, babesa eta sustapena) titularren gaitasunak indartzearren | 1 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| Estrategia - estrategia integrala proposatzen bada eskubideen titularrak galdagarritasunean indartzeko eta/edo betebeharren titularrak betetze horren bermean indartzeko | 1 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| **2.6. Jasangarritasun ekologikoa** | **4** | | |
| Diagnostikoa - xede-biztanleriaren ingurunearen ingurumen-egoerari buruzko azterketa zehatza badago | 1 | 3.- Testuingurua | |
| Esparru Logikoaren Matrizea - jarduera zehatzak definitzen badira jasangarritasun ekologikoaren alde | 1 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| Estrategia - ingurunearen ingurumen-egoera hobetuko duen estrategia integral bat planteatzen bada | 1 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| Proiektuko jardueren eragin negatiboa prebenitzeko eta arintzeko neurriak badaude | 1 | 8.- Esku hartzeko logika | |
| **III - EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEAREKIN EDO EUSKADIKO ORDEZKARITZAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK** | **9** | | |
| **3.1. Esperientzia** | **2** | | 6.- Esperientzia |
| **3.1.1. B**aldin eta proiektuaren gaian proiektu bi gauzatzeko finantzazioa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2020-2024) | **2** | | 6.1.- Erakunde eskatzaileak proiektuaren gaiarekin loturik izan duen esperientzia azkeneko bost urteetan. Gehienez 5 ekimen adierazi daitezke.<br><br>•Ordezkaritzen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) ordezkaritzaren esperientziari buruzko informazioa soilik aipatu behar da; EAEtik kanpoko beste egoitza batzuetatik kudeatutako esperientzia ez da aintzat hartuko. |
| **3.1.2.** Baldin eta proiektuaren gaian proiektu bat gauzatzeko finantzazioa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2023-2024) | **1** | | |
| **3.2. Erakunde eskatzailearen eta toki-erakundearen arteko baterako lan-esperientzia, halakorik badago** | **3** | | 6.- Esperientzia |
| **3.2.1.** Baldin eta euskal erakundeak tokiko erakundearekin bi proiektu gauzatzeko finantzazioa lortu badu deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2020-2024) | **2** | | 6.2.- Erakunde eskatzaileak proiektu edo ekimenak tokiko erakundearekin batera kudeatzen izan duen esperientzia azken bost urteotan. Gehienez 5 ekimen adierazi daitezke.<br><br>•Ordezkaritzen kasuan, EAEko ordezkaritzaren esperientziari buruzko informazioa soilik aipatu behar da; EAEtik kanpoko beste egoitza batzuetatik kudeatutako esperientzia ez da aintzat hartuko.<br><br>•Erakunde eskatzaileen partzuergoa izanez gero, partzuergoburuari dagokion informazioa soilik bete behar da.<br><br>•Tokiko erakundeen arteko partzuergoaren kasuan, kidetutako erakunde bakoitzari dagokion |
| **3.2.2.** Baldin eta euskal erakundeak tokiko erakundearekin proiektu bat gauzatzeko finantzazioa lortu badu deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2023-2024). | **1** | | |
| **3.2.3. Puntu gehigarria -** konfiantzazko harremana, elkar ezagutzea eta baterako lanerako aukerak dituela egiaztatzen badu | **1** | | |
| **3.3. Parte-hartzea eta lotura - proiektuarekin gaikako lotura duen nazioarteko koordinakunde, sare edo mugimenduren batean parte hartzen badu** | **1** | Eskaera instantzia | |
| **3.4. Genero ikuspegia erakunde arloan sartzea - erakunde eskatzaileak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu** | **1** | Eskaera instantzia eta agiria | |
| **3.5. Erakunde eskatzaileen arteko partzuergoa** | **2** | Eskaera instantzia<br>5.- Justifikazioa | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **3.5.1. P**roiektua partaidetza esanguratsua duten erakunde eskatzaileen partzuergo batek gauzatzen badu | **1** | | |
| **3.5.2. Puntu gehigarria -** partzuergoan Euskadiko eragile ez-tradizional bat sartzen bada lankidetzaren arloan | **1** | | |
| **IV - TOKIKO ERAKUNDE BAZKIDEAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK (hala badagokio)** | **9** | | |
| **4.1. Esperientzia** | **3** | 6.- Esperientza | |
| **4.1.1.** Baldin eta proiektuaren gaian hiru proiektu gauzatzeko finantzazioa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2020-2024). | **3** | | 6.3.- Tokiko erakundeak proiektuaren gaiarekin loturik izan duen esperientzia azken bost urteetan. Gehienez 5 ekimen adierazi daitezke.<br><br>•Tokiko erakundeen arteko partzuergoaren kasuan, kidetutako erakunde bakoitzari dagokion |
| **4.1.2.** Baldin eta proiektuaren gaian proiektu bat gauzatzeko finantzazioa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2023-2024). | **1** | | |
| **4.2. Tokiko erakunde bazkideak xede-biztanleriarekin batera izandako lan-esperientzia** | **3** | 6.- Esperientzia | |
| **4.2.1. T**oki-erakundeak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin hiru proiektu gauzatzeko finantzazioa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bost urte naturaletan (2020-2024) | **3** | | 6.4.- Tokiko erakundeak proiektuaren xede-biztanleriarekin izan duen esperientzia azken bost urteetan. Gehienez 5 ekimen adierazi daitezke<br><br>•Tokiko erakundeen arteko partzuergoaren kasuan, kidetutako erakunde bakoitzari dagokion informazioa osatu ahal izango da. |
| **4.2.2.** Toki-erakundeak egiaztatzen badu proiektuaren xede den biztanleriarekin proiektu bat gauzatzeko finantzazioa lortu badu, gutxienez, deialdiaren aurreko bi urte naturaletan (2023-2024) | **1** | | |
| **4.3. Genero-ikuspegia erakunde-arloan sartzea** | **2** | | |
| 4.3.1. Tokiko erakunde bazkideak indarreko genero-politika badu | 1 | Eskaera instantzia eta agiria | |
| 4.3.2. Tokiko erakunde bazkidea erakunde feminista bada | 1 | 5.- Justifikazioa<br>8.- Esku hartze logika | |
| **4.4. Tokiko erakunde bazkideen arteko partzuergoa** | **1** | Eskaera instantzia<br>5.- Justifikazioa<br>Partzuergo hitzarmena | |